

## **BADIRA BALIOAK GEIENGOEN GAINETIK ERE**

Joseph Ratzinger kardinalaren itzaldi baten laburpena besterik ez da lantxo onen edukina. Itzaldi au, joan dan urteko irailaren 20an, Trieste urian emondakoa dogu. Arrazoi moral gabeko politikagintzaren krisi sakona dau aztergai.

Estatuen elburu nagusia bakea eta justizia lortzea danez, ezin dira politikan be arrazoi moralak baztertu. Bestela botereak alderdikierietan jausteko arriskuan dagoz eta orduan iluntasun beteriko mitoak sortzen diralako.

Begien aurrean jarten ditu Ratzingerrek ogeigarren mendeko bi mito bildurgarri. Bata, nazional-sozialismoak sortutakoa. Eta bestea, eboluzio-historiko-dialektikoaren erraietan asmatua. Bai batak eta bai besteak arrazoi moralak zapalduz, zoramen eta liluraz beteriko gizarte barri baten promesekin, ondorio bildurgarriak ekarri izan deutsoez munduari. Geuk ezagututako Historia dogu orren testigu.

### ***Gaurko mito barriak***

Naizta arrazismoa eta materialsimo dialektikoa ankaz gora jausi, arrazoi moral gabeko botereak, gaur be, beste mito batzuk sortu deuskuez. Iru mito barri aipatzen ditu kardinal alemaniarrek. Bata aurrerapenaren mitoa. Bestea zientziaren mitoa. Eta irugarrena, askatasunaren mitoa.

Irurak egiazko balioetan oiñarrituta baina kontzientzia moralaren argi gabe, askotan mito biurtu dabez munduko botereak. Arriskua ez dator aurrerapenetik, ezta zientziatik, ezta askatasunetik be. Benetako arriskua gizakiarengan dago, gero eta tresna indartsuagoak bere eskuetan daukazalako bai ondame nerako eta bai konkista gorenetarako gai direnak.

Sekula ez da gaur lez preminazko izan gizakiaren kontzientzia moralera deitzea.

Aurrerapena eta zientzia eta askatasuna, arrazoi moral bako botereen eskuetan, mito biurtzen dira. Esaterako, aurrerapen teknikoak, ez dau berez gizarte barri bat sortzen. Gizona gizon danetik, bardiña jarraitzen dau izaten egoera primitiboetan eta gaurkoetan. Gizonak ez dau beste maila batera igoten tresna tekniko modernoak erabiliz bakarrik. Beti oinez ibili izan dan gizona, ez da gizonago biurtzen beste barik aireplanoan ibiliaz. Gizona izaten bein eta barrero ikasi bear dau bakotxak bere asieratik. Pertsona bakotxa librea danez, beti be gizatasunezko edo gizagabeko bideak onartu leikez. Orregaitik ezin da ba asmatu bein betiko gizarte liluragarri bat mundu onetan sortzea. Bestela aurrerapena mito biurtzeko arriskuan legoke.

Zientziaren arrakasta ortxe dago. Baina zientzia bera be erabili leike ez bakarrik gizakiaren aurka baita izadiaren kontra be. Orduan pertsonen duintasuna eta izadiaren edertasuna lorrinduta geratzen dira. Aurrerapenak geitu egin ditu gizonen eta errien arteko diferentziak. Gizonen eta emakumeen arteko etorkizuna bera be geroago eta arriskutsuago ikusten da. Zenbat disparate egin izan diran zientziaren izenean! Orra or, arma nuklearrak eta kimikoak, baita giza enbrioiekin egindako esperimentuak eta giza zatien salerosketak eta abar. Zientzia bera be desmitifikatu bearrean aurkitzen da. Bestela babesbako pertsonen duintasuna eta errespetua lurra jota geratuko litzakez

Askatasuna gauza ederra dogu. Baina askatasuna mito biurtzen danean, zelako disparateak egin izan diran historian! Askatasunaren emoitzak justiziaren eta bakearen eskutik lotuta dotoz. Bestela anarkiaren eta esklabotasunaren arriskua zelan uxatu?

### **Geiengoan diktadura**

Aurrerapena eta zientzia eta askatasuna be desmitifikatu bearren aurkitzen gara. Eta desmitifikatzearen elburua arrazoia- ren argia indarbarritzean dago. Polikagintzan, normalean,

geiengoaren abotsa izango da biderik egokiena erritarren interesak lortzeko. Baina geiengoak ezin dau izan azken berbea.

Badira balioak inondiko geiengoak ezin dabezanak zapaldu. Errubakoen ilketak, esaterako, ezin dira inoiz be, geiengoaren botereen indarrez, eskubide biurtu. Emen be, arrazoi morala dago geiengoaren gaineratik. Bere bizitzako fase guztietan, pertsona bakotzak bizi izateko daukon eskubidea, ezin da zientziaren eta askatasunaren izenean birrindu. Abortua, adibidez, askatasunaren izenean onartzen bada, norbere askatasuna jarten da, besteak bizi izateko daukan eskubidearen gaineratik.

Beste bidegabekeria batzuk be aitatzen ditu Ratzingerrek. Orretariko puntu baltz bat auxe dogu mendebalean: besteen-tzako zer izan bear dauan sakratua erabakitzeo askatasuna. Jaungoikoari eskerrak, gure artean ez dau inok erabakitzen zer izan bear dauan sakratua judutar edo mahometar batentzat. Baina oinarrizko askatasunaren eskubide bezela onartzen da kristautentzako sakratu diran balioak barregarri iztea.

Badira balioak geiengoaren gaineratik zaindu bear diranak. Baina zeintzuk dira, rasionalki onartu leikezan balio orreek? Orra or gaurko gizartean onartutako oiñarrizko balio batzuk: bakea, justizia, izadiaren defentsa, gizon-emakume guztien duintasuna eta euren eskubideen bardintasuna, kontzientzi askatasuna, erlijio-askatasuna.

Balio oneek, askotan, lar zeaztugabe aurkitzen diranez, Amar Aginduak oiñarrizko balio bezela jartea proposatzen dau kardinal alemaniarrek. Amar Aginduak ez dira bakarrik kristauen edo judutarren eskubideak; beste erlijio eta kultura desberdiñetan be paregabeko oiartzuna dabe. Giza jatorrizko balioak or dagoz laburbilduta!. Ikusten danez, fedea ez dau arrazoa ordezkatzeko, bai oster, argitu eta indartu giza-balio funtsezkoenak defendatzeko.

*A. Olea*